

# Heriotzondokoen historiaz

*Los llamados novísimos o postrimerías, o las escatologías de las diversas religiones no están de moda; por lo general, el Más-Allá o la Ultratumba no tiene particular actualidad mediática, salvo la primera semana de noviembre. Razones complejas explicarían tal desinterés. Sin embargo, hay que constatar que existen, al respecto, valiosas aportaciones de las últimas generaciones de teólogos. A continuación se apunta, al respecto, el interés de algunos estudios históricos recientes.*

## **Dotrinan ikasitakoaz gain**

Zerbait bitxia ari da gertatzen gure artean gai honi dagokionez. Hileta guztietan dago hildakorearen inguruko galdera isil eta lotsati hau: "Eta orain zer, gure anaiarekin?". Mezakoan, Bibliatik zerbait irakurri da horretaz, apaizak bere sermoia egin du, entzuleetako bakoitzak erabaki du sinetsi ala ez...

Jainkoa sinesteak lanak ematen dituen honetan, lotsa ere ematen du zerua, infernua edo garbitokia ba ote diren, edo nola uler litezkeen galdetzeak. Egia esan, badirudi, teologoien hitzetan ere, sobera aldatuak ageri direla garai bateko zeru, infernu eta gainerakoak. Hor ere Teologia berritzen ari da; hortaz, aldatzen ere bai.

Heriotzondokoen hau arazo teorikoz eta bizi-galderaz betetako eremua da, Mendebaldeko kristautasunean bere funtsezko pentsamendua Erdi Arotik duena, batez ere San Tomas Akinokoagandik hasita. Teologia kristauen barruan, eremu jakin bat garatu da (*Eskatologia*) heriotzondokoez dagoen dotrina eta gogoetari bere leku eroso emateko (*De novissimis* esan ohi zaio berorri).

*Eskatologia* hitza bera (hizkuntza grekotik datorrena) XVII. mendean agertu zen, eta tratatu horren garapen modernoa XIX. mendeko lehen hamarkadetatik dator. Mundu protestantean bere garaian (Luter, Calvin) eta katolikoan berri-

kitan (Congar), pentsamendu tradizionala berraztertu egin da, eta proposamen berriak egin dira heriotzondokoa teologia berritu batek ulertzeko (Pannenberg eta Moltman protestanteak, Lubac, Rahner edo Metz katolikoak). Tamalez, ez dirudi lan horien emaitzak kristu-ikasbideetarako beharrezko argitasun eta indarrez iritsi direnik.

Heriotzondokoen historia bere gerokotasunean erlijio ezberdinetan arretaz begiratu izan da (Islama, Hinduismoa, Budismoa...), eta hori arrazoi askorengatik: heriotzondokoak herritar sinestunek aintzakotzat hartzen zituztelako (gogora Txinako tradizio konfuziotarra), sinesgai horiek mundu honetako gizartean beren antolakuntza zutelako (elizak, kofradiak, elkarteak...), eta, nolana ere, sinesgai horiek gizakiak bere burua ulertzeko ere bazirelako.

Zientzia-alor ezberdinetatik begiratu izan zaio heriotzondokoen gure arteko historiari, eta ez fedetik edo Elizatik bakarrik. Teologiak edo Filosofiak beren gogoeta eskaini dute, Zuzenbideak mundutik Beste Alde harekiko harremana arautu izan du (Elizako lege eta arauak), harreman horietatik Ekonomia sortu izan da (Mezatarako fundazioak, etab.); Etnografiak erakusten digunez, hildakoekiko herritarren harremana ohitura jakinetan gauzatu da, Arteak edo Literaturak sarritan mintzatu dira heriotzondokoez...



### Hilondokoak geure gizartean ere

Eliza kristauen iraganean, mota ezberdinetako presentzia izan du heriotzondokoen Teologiak (gogora hilen aldeko indulgentzien eztabaida tarteko izanik sortu zela Protestantismoa). Katoliko eta ortodoxoen dotrinak elkarrengandik hurbil daude, baina ez Eliza protestanteenak.

Erlijiotasun herritarak azkarki bizi izan ditu bere sinesmen eta ustekizunak, hilondokoari dagozkionetan. Hildakoen geroa biziak zaindu dute, eta bizon oraina joandakoen laguntzaz segurtatu nahi izan da. Hemengo eta "bestaldekoen" mugalde hori garrantzi handikoa gertatu da beti, otoitzean ez ezik ekonomian ere, legeetan, herrietako ohituretan, Elizaren antolakuntzan, eta hirigintzan bertan ere (hor daude elizondoetako hilerrriak eta abar).

Edozein erlijiotako santuen historietan, kontaezin ahala gertaera egon dira hil-bizien arteko segida bermatu nahi izan dutenak, herrietan eta denboran zehar: kanonizazio gutxiasko ofizialekin, herritarren jai eta jaierekin, sortu izan diren santutegiekin, erlikien debozioarekin, santutasunaren bila edo Beste Alde hartatik itxaro direnak lortzeko egindako erromesibilaldiekin, etab.

Horrek guztiak Beste Munduaren hemengo historia bat sortu du, gure hemengo denboran eta gizartean garatuz joan dena. Esan nahi da, heriotzondokoek hemen, lur honetan ere, egin dutela historia, kontakizun hutsa ez, baizik errealitate sozial eta historikoa izan dena.

Horregatik, azkeneko hamarkadetan ez-usteko Historia idatziak ere irakurri ahal izan ditugu, historialari onen liburuetan: J. Le Goff-ek Purgatorioaren Historia idatzi zigan (1981). Paradisuaren Historia ere idatzita dago orain, Deustuko Unibertsitatean Ohorezko Doktore izendatu zuten J. Delumeau-ren eskutik (1992),

eta ez da falta R. Aron-ek eman zigun Jainkoaren Historia (1964), mundu honetako gizarteak Jainkoarekikoa nola antolatu eta bizi izan duen azaltzen duena.

Bukatzeko, azpimarratzekoa da Heriotzondokoen mezuak herritarren sinesmenean eta fede-bizipenean ezarritako beldurraren erlijiotasuna. Gure idazleen liburuetan begira daiteke hori, inoiz edo bestetan prosa ederrean (Axular-en *Gero*), edo euskal literaturan ditugun sermoi-liburuetan ere. Heriotzondoko haien atzerai-ohartzunak beti egon dira presente gure mundu lurtar honetan ere, eta batzuetan modu distiratsuan, gainera.

Ikustekoa da letra-gizon handi batzuek Hemengoa eta Beste Aldea izan-kate berean nola ulertu eta elkar argitu zituzten. Besteak beste, Kristau-herrian baditugu horren bi adibide leinargi.

Dante Alighieri (1265-1321) italiarrak bere *Divina Commedia* eman zigun, Hemengo mundua Beste Aldera eramane eta Handik Honakoari begiratzen ziola. "Komedia" ez baizik mundu honi begira dagoen antzertia, hemengo hildakoen hango epai-lekua, poz eta atsekabez osatutako lagunartea ageri dira poematan. Hitz batean, balio, itxaropen eta etsipenak.

John Milton-en (1608-1674) *Paradise lost* (Paradisu galdua) askatasunaren kantua da, kristau salbamenaren historian heriotza-aurreko eta ondoko bi munduak lotzen ditu, giza ahaleginari, maitasunari eta historiari zentzurik ederrera emanda; esan denaren arabera "gizadiaren bizi-liburu handienetako bat" gertatzen da Milton-en poema.

Eta gaur egun zer sinetsi beharko genuke "Haragoko" mundu horretaz? Erantzun berritua behar du galdera horrek.

**Joseba Intxausti**